

EUSKALTZAINDIA'REN

BOSTGAREN URTEKO BATZARAK

**Donestebe'n (Napañoa), Udal-etxean, 1923'ko
Agoa'ren 8'an.**

Azkue maipuru dutela euskaltzain abek bildu dira: Kanpion, Olabide, Landeñetxe, Eguskitza, Altube, Intza, Lakonbe ta urgazletatik Bahr jauna.

Otoitzez asi da batzaraldi au.

Maipuru jaunak Eleizalde euskaltzain argia zanaren eriotzaren beñi dakar, ta gizon azkar zanaren oroitza mintsua egin du itz samur ta egokiaz.

Mintasunaren negar-negaraez Euskaltzaindia altxa da ta ildako lagun maitearen alde otoitz Jainkoari egin-da amaitu da batzaraldi au urngo egunean Meza batera joateko asmoz.

**Donestebe'ko Udal-etxean, 1923'ko Agoa'ren
9'an.**

Aureko batzaraldian aipatu diran euskaltzain berak bildu dira eta ona artu diran erabakiak.

1. Euskaltzain-lagunaren utsuna, araudiak dion bezela, iragartzea erabaki da.

2. Gazteiz'ko apezpiko jaunari zorionik bikañenak eman bear zaizkio bere *Pastorala* lenbizikoz euskeraz idatzi ta zabaldu duelako,